

ANIMALIAK PENTSAGAI ONAK DIRA

Mikel Azurmendiren “Euskal Nortasunaren Animaliak” (Baroja, 1987) liburua gaurko euskal etnografia berriaren baitan toki berezi bat izatera deiturik dago. Ikerketa honek Euskal Herriko animalieri buruzko etnografiaren hastapena suposatzen du. Eguneroko bizitzan animaliekin ditugun harrename-tan finkaturik, azterketa honek euskal kultura tradizionalaren dimentsio imajinarioa azpimarratzen du. Aurreuposatuz gizarte baten pentsakera eta sentike-ra ezagutzeko gizarte hortako imajina nagusiak kontutan har behar direla, instituzio eta ohitura funtsezkoak sinbolo eta imajina sintetiko batzuetan kokatzea proposatzen du azterketa proiektu bezala. Lan honen azierto nagusia da animaliak aukeratzea sinbolismo tradizionalaren ikergaitzat.

Azurmendiaren metodologiaren ardatza hau izan da: euskeraz idatzitako testu literario, eta bertso, errefrau, eta ipuin bildumak arakatu. Hau nahitaezko lehen pausoa da, kultura herrikoia- ren edukiak biltzerakoan bilduma hauek materiale utziezina baidute. Bestalde literatura hontan murgiltzea oraindik ere bizirik dagoen eta edozein herritan etnografikoki jaso daitezken esaera, imaginazio- era, eta bizikerak ezagutzea da. Bere metoduan, bada, iragana eta oraina, kultura idatzia eta ahozko esaldi eta irteerak, imajina mitifikatuak eta beren eguneroko funtzioak elkar uztartzen eta elkar kuestionatzen ikusten ditugu. Eta azkenik ikerketa lan hori gaur egungo teoria antropologikoarekin eta zenbait arazo filosofikoekin loturik azaltzen zaigu.

Tesisa honen interesa agertzerakoan bost puntu hauek azpimarra gintezke.

1. Ohizko euskal bizibide eta imajinazioan animaliak funtsezko zutabeak izan direnaren rekonozimendua. Historian zehar animaliekin harremanetan bizi izan gara gauza aski ezaguna da; horrezaz gain, ordea, Azurmendik erakusten diguna zera da, animalia hoi- en imajinak eta erre- presentazio ritualizatuak funtsezko izan direla gure komunikazio hitzezko eta sinbolikoa osatzerakoan. Ihizerako pizti basati bezala, edo langailu, elikadura, eta bizilagun domestikatu bezala, beste gizarteetan gertatzen den antzo euskaldunak ere aberea izan du bere eguneroko bizitzako elementu nagusia. Zentzu honetan, Ekaingo zaldi margotzaitetik gaurko ehiztari eta baserritarrarenganaino, animaliak izan dira gizonarentzat imajina iturri eta konportaera modeluen izpilu. Ikerketa honek erakusten digu aurreko denboretan esanahi kulturalen fokalizazioa guztiz bereziki animaliek eskaintzen duten “imajina sintetiku” hauen arabera egiten zela.

2. Goikoarekin loturik, Azurmendiren lanak beste dimentsio berri bat dakarkio euskal kulturaren azterketari: euskal nortasunaren formazioan anima-

liek hartzen duten erreferentzia metaforikoa. Alegia, gure nortasuna oinarritze-rakoan animaliak izan zaizkigula identifikazioak eta kontrastasunak eskaini dizkiguten gauza primordialak. Haurren jolasetan hasi, eta helduen joko, ehiza, eta eguneroko hizkuntza metaforiko arte, lehen eta oraindik ere animaliak zaizkigu erreferentzia nahitaezko. Sujetibitatearen sorketaren prozesua aztertze-ko orduan, animalien imajineri begiratu behar diegula da Azurmendiren proposamena gaurko antropologia kulturalari jarraiki. Azterbide hau zenbate-raino den egokia ikusteko tesisa hontako horrialde bakoitza da lekuko.

3. Ikerketa honek testuinguru ritualizatu zenbait arakatzeko bide berriak apuntatzen ditu. Bi adibide bakarrik aipatuko ditugu. Sorgin fenomenuaren testuingurua da bat. Dakigun bezala, sorginek animalien imajinak erabiltzen zituzten —akerrak, ahariak, katuak, sapuak, etabar— eta fenomeno osoa bera animalia hauen funtzio eta esanahien arabera gertatzen zen. Sorginen metamorfosia ezagunak animalien formak zituzten beharrezko. Mari bezalako figura mitikoek ere animalia itxuretan azaltzen ziren gehienbat. Hau da, sorgin mentalidade hartako ritualak eta sineskerak ulertzeko nahitaez animalietara jo behar, zeren hauek eskeintzen baidute ritual hoiaren ardatz diren imajina sintetiko nagusiak. Beste adibide bat Txelemon deitzen zaion eta honen antzeko komedia popularrak dira. Hauek plan ritualizatu baten arabera osatuak daude, eta hemen ere animaliak hartzen dute protagonismo nagusia. Errepresentazio hoiek egiten zituen gizartean jakin gabe animaliek ze funtzio eta adierazpen kultural zuten ezin da ulertu komedia hoiaren azpitik dagoen zeresana.

4. Azurmendiren inbentarioa testu literarioetatik jaso dago gehienbat, hau da, “idatzita” dauden ipuin, errefrau, bertso, sermoi, poesia, etabar. Egitazko etnografia bat egin ahal izateko lan honek beste ikerketa baten eskakizuna du berarekin: errepresentazio literario hauek oraindik animalianganako tratuan ze neurritan dirauten herriz herri lekuko ikerketa eginaz frogatu. Gonbaraketa hortarako tesisa honek aurrean oinarritzkoa eskaintzen du. Inbestigazio horrek argituko lituzke kultura literario eta herrikoi ahozkoaren arteko lotura eta diskontinuitateak. Ahozko ala idatzi diren kultura moten arteko azterketa, hain beharrezkoa bertsoaritzaren ezagupenerako adibidez, oinarri etnografiko eta historikoan finkaturik eginga izan daiteke modu horretan.

5. Azkenengo puntuarekin batean, Azurmendiren lanak gogoratzen digu kultura aldatetako aztertzerakoan animalia imajina hauen desagertzearen garrantzia gure gizartean. Bizibide eta teknologia aldatetekin batera, imajina hauek galtzean geure nortasuna definitzeko erabilten genituen ohizko estrategiak galtzea da. Era berean animalia hauek gabe aldakuntza sakon bat ematen da gure konportaera ritualizatuetan, nahiz mitologiarekin loturik zeuden imajina eta sineskeretan, nahiz sendakuntza bezalako prozesuetan, nahiz etxebizitzako giroa errepresentatzerakoan.

Guzti hau kontutan harturik Azurmendi jaunaren ikerlana behar-beharrezkoa genuen eta euskal etnografian hutsune bat betetzera dator. Gizarte tradizional-eko erakunde eta ohiturak aztertze-ko bide berriak proposatuaz, animalien imajinak arakatzea zein beharrezko eta emankor den erakusten zaigu. Zentzu horretan ikerketa honek bide berri prometa-
garri bat eraikitzen du eta lehen urrats garrantzizkoa da bera.